



IÑAKI  
LABAKA

Txokoalde

## Sagarra biltzeko garaia

Hego haizeak eta ehiztariak usotan ateratzen duten zaratak adirazten digu garbi udazkena ailegatu zaigula.

Urte sasoi honetan, beste protagonista nagusia sagardoa izaten da. Baserritarrak azken egunetan bere sagarrondoak moildu eta kixkia erabiliz sagarrak biltzen jardun dira. Lehen sagardoa baserri askotan egiten ba zen, etxerako alegia, orain berriz, gutxi batzuetan mantentzen dute ohitura hori, gehienek sagardogietara eramaten dute. Gure auzoan Illunbe sagardotegiak erosten ditu inguruko sagar kopuru handinak. Bildutako sagarrak jotzen hasiak dira dagoeneko, eta tolaiek jarri dituzte lanean hemendik hiru hilebetera zuku gozo hori denok dasta dezagun.

Beti entzun izan dugu euri urtea sagar urtea izaten dela, aurten ura nahikoa izan dugunez uzta oso ona izan dugu, azken urtetako onena.



Eguraldi txarrak zerbait ona beharko zuen ba! Aurten kiloko 0,24 euro (36,6 pezeta) ordainduko omen dizkiete baserritarrei (Sagardogileen Elkarteak jarritako prezioa). Lehen esan bezala San Sebastianetan inguru ikusi beharko dugu zer nolako sagardoa datorren aurten. Ederra etor dadila, denok gozatzeko.



IÑAKI  
AGIRRESAROBE

Kaleberri

## Zuberoa eta Usurbil anaikidetuz

Urtero legez, urria aldean hasten den bertso eskolako ikasturtea aurten ere abian da. Asteazkenero biltzen jarraitzen badu ere, aurtengoan Txaramuntoko egoitzetan hasi da euskaltegiaren alboan hain zuzen ere. 20:30etan izaten da ordua eta herriko bertso eskola bada ere kanpotarrek dute nagusitasuna, aspaldiko honetan ohi den bezala.

Bestalde, joan den igandean herriko barazki, behiki eta txerriekiekin egindako azokan jende andana bildu zen eguraldi ezin hobea aprobetxaturik. Banatzen ziren zizka-mizkak ongi aprobetxaturik sabela ongi bete zuen. Aipagarriena urte osoan herriko dendetan ere salgai egoten direla eta herritartasuna aldarrikatzeko balio zezala behintzat.

Amaitzeko, usurbildar talde batek zuberotarrekin duten hartu emana aprobetxaturik, azaroaren 2an Urdiñarbera doazela esan behar. Pilotari gazteekin batera sukaldari eta guzti

doaz. Han larunbat aldean trinketean bi herrien arteko pilota partida jokatu ostean lagunarteko afariarekin amaituko da festa. Senidetasun horrek luzaroan jarrai dezala.

